

# Landareak

JAKOBA ERREKONDO

## Ote bedeinkatua

AGIRREK karobi-eztei handiak aipatzen ditu *Garoan*. Juan Mari Beltranek ere aitatzen ditu, txalaparta eta kirikoketaren harira, sagardogintzaren antzera karobiko lana ere amaitutakoan ospatzeko horietakoa izango zen... urteroko lan nagusietako bat.

Sekulako su garrak ezagutuko zituzten karobi labeeak. Harria erretzeko adinakoak, alajaina! Horrek arriskua ere berarekin eta badaezpada garaiko sekta nagusiaren bedeinkazioa eskatzen zen karobientzat. Hona sektakide jantzi baten liburuak zer dioen, R.M. Azkueren *Euskalerrriaren Yakintzak*: “Karobietan, zorigaitzik izan ezteian, benedikatu ta gero zotal gainean kurutze bat ezartzen dute”. Gurutze horrek, labeko suak bezala, zenbait tokitan egur jakin batekoa izan behar zuen: Bizkaian Judas-egurrezkoa (zuhandorra, *Cornus sanguinea*) eta haritzezkoa (*Quercus robur*), Nafarroan pagozkoa (*Fagus sylvatica*) eta elorritzkoa (*Crataegus* sp.). Hala ere, nonahi, ia edozein egurrekin egiten zela ere badio. Karobia berria bazen bedeinkatutako sorta batekin pizten omen zen.

Ote-sortak (*Ulex* sp.) ziren labe haiek berotzen hasteko erregai nagusia. Otadi latzak garbituko zituzten... Berdetan ere galantak ematen dituenak, ihar-ihar eginda, nolako garrak emango ote zituen?

Egun ikusi ere egin ezin den otadia, orduan ustiatu egiten zuten. Nonbait irakurria dut, ez dut gogoan zein liburutant, otea soroetan ereiten zela. Ez zuten, noski, soroko ote berri gozoa surtarako izango. Makina bat baserrietako ganbara eta karreratan hautsa jaten eta museo etnografikoetan jaten ematen, hor ikusten da otea jotzeko tramankulu ugari. Txikitxiki ebakitzeko aho zorrotz askoko bolandera duen makina. Otearen urteko puja txikitua ondua, lastoa, arbia... zena zela, nahasi eta ganaduarentzat mokadu goxoa.



**Ura eta ardoa.** Neguan du paisaiak kolore gehien. Zuhaitz eta zuhaixken azalak, begiak, loreak... zimel asko, larrua bizirik igurzten dira kazkabarrarekin, izotzarekin, gaintxiorekin, elurrarekin. Eguzkiak zeruaren beheko barrenetik argitzen du eta pai-

saia sakonagoan koloreen antzemateak lilura puntu erantsia du. Urzale amorratuak, erreka eta ibaietako aurtengo ispilu berdeen aldamenean haltzek ardo koloreko xingolak hedatzen dituzte. Lore ar txoroak izango direnak, dilindariak.

## 31

Nafarroan Monumentu Natural izendatuta dauden zuhaitzak dira. 1991ko 165. dekretu foralean bildu eta haien babesaraua zuten. Bertan lau arte (hiru *Quercus ilex* eta *Quercus rotundifolia* bat), hiru erkametz (*Quercus faginea*), lau haritz kandudun (*Quercus robur*), haritz hibrido bat (*Q. petraea* x *Q. pubescens*), hiru pago (*Fagus sylvatica*), hurritz bat (*Corylus avellana*), zurzuri bat (*Populus alba*), astigar arrunt bat (*Acer campestre*), marugatze beltz bat (*Morus nigra*), elorri zuri bat (*Crataegus monogyna*), intxaurren bat (*Juglans regia*), bi izei zuri (*Abies alba*), bi sekuoia (*Sequoiadendron giganteum*), bi hagin (*Taxus baccata*), zedro bat (*Cedrus libani*), zume zuri bat (*Salix alba*), hego-ipuru bat (*Juniperus oxycedrus*) eta pinu edo ler gorri bat (*Pinus sylvestris*). Zerrenda hau eguneratzeko arrazoi ugari, zuhaitz apart ugari bada.